

2005EKO AZAROAREN 24KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko azaroaren hogeita lauan, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak adierazten du, hutsegitez 2006ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda gaia ez dela eguneko gai zerrendan sartu baina legeak dioenez aurrekontuarekin batera onartu beharrekoa dela eta beraz gai hauek ere tratatu egingo direla.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko urriaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- HIRIGOIENGO BIRRURBANIZAZIO LANEN BIGARRENGO ZERTIFIKAZIOA.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen bigarren zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa HAMABOST MILA ZAZPIREHUN ETA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMOtakoa (15.719,64 €) da.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen bigarren zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenak irakurri dira.

Serna zinegotziak partida ezberdinen gehikuntzen zergatiaz galdera egiten du eta Alkateak eskatutako argibideak ematen dizkio.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 8 botu (EAJ, PP), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSOE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	161.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	559.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		720.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
I	Sarrera handiagoak:	
	Zuzeneko zergak	110.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	250.000,00 €
VI	Inbertsioen bestereng. eta hirigintz aprobeitza.	216.877,88 €
VIII	Diruzaintzako gerakina	143.122,12 €

GUZTIRA	720.000,00 €
----------------	---------------------

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- 2006KO AURREKONTUA.-

Alkateak 2006ko ekitaldirako aurrekontuaren azalpena egiten du. Esaten du aurreko urtetik datozen konpromezu kredituak Hirigoiengo berrurbanizaziorako 150.000 euro eta San Prudentzioko Ermita inguruko proiekturako 390.000 euro direla nahiz eta azken honetan aldaketa bat planteatzen den eta gainontzean inbertsioen atalean planteatzen diren partida nagusiak honako hauek direla: Mikelargo birrurbanizazioarako 80.000 euro, Udaletxetik frontoira espaloia egiteko 60.000 euro, Zelata-Jose Lasako parkerako 120.000 euro, Udaletxeko birmoldaketa 2. faserako 120.000 euro, hilerrirako 80.000 euro, ikastolarako 60.000 euro. Esaten du baita ere iaz San Prudentzio Ermita inguruko obrarako konpromezu kreditu gisa 390.000 euro jarri zirela eta orain aurten 150.000 euro eta beste 240.000 euro datorren urterako uztea planteatzen dela. Honezaz gain eta zenbateakoren arabera inbertsiorik garrantzitsuena izango litzatekena, Azeria zinea edo hobeto esanda auditorioa eta hainbat areto izango den eraikinaren eraikuntzarenak, 3 milioi eurotako aurrekontua izango lukeela eta horietatik 2006ko aurrekontuan 1.700.000euro jarriko lirateke eta gainontzekoa, hau da, 1.300.000 euro 2007rako konpromezu kreditua izango litzateke. Hazienda Batzordean aipatutako gainontzeko proiektuak, 2005eko aurrekontu likidazioan egon daitekeen gerakinaren zai geratzen dira eta bestela 2007ko aurrekonturako.

Olaso zinegotziak aipatu diren baina aurrekontuan aurrikusten ez diren inbertsioei buruz galdetzen du, Zubierrekako zubia, Dukearen Parkearen hobekuntzak, eta abar eta hauekin hastera noiz aurrikusten den. Gaineratzen du azken urteetan hainbat proposamen egin dituela eta inolako arrakastarik ez dutela izan. Azkenik esaten du Euskadi Enparantzari buruz proposamen bat egiten duela eta Idazkariari ematen dio. Proposamenak honela dio:

"Erdiko hirigunea

Lazkaoko Arau Subsidiarioetan udalerriko erdian gabezi endemiko gisa adierazten da:

"udalerriko enparantza nagusia, definitzeke eta egiteke dagoen urbanizazioa."

Gune hau, gaur egun izaerarik gabea, Udaletxe aurrean aparkaleku sistema anarkiko batez, bereizitako trataera eredugarria merezi du udalerriko erdigune erakargarri bihurtzeko. Bilgune enparantza, atsedene guneekin eta zuhaitzekin, esertoki altzariz jantzia, ibilbide eta lorategi guneren batekin. Baita musika espektakuluetarako kiosko batekin ere.-

Baita ere bere azaleraren zati txiki bat autoen aparkalekutarako bideratu beharko da, inguruko gune zuhurren batean.-

Enparantza zabal hau, gutxi gorabehera 7.000 m²rekin, udalerriaren bihotza bihurtu behar du 2.270.400 eurotako ekarpenarekin.-" Esaten du baita ere proiektu handia eta zabala dela baina 2006 eta 2007 urteetan zehar burutzekoa izan daitekeela.

Alkateak erantzuten dio esanez eskertzen diola proposamen hau Osoko Bilkurara ekartzea baina proposamenak batzordeetan eztabaidatzen direla, kasu honetan hazienda batzordean. Plazari dagokionean, esaten dio bera alkate izendatu aurretik datorren gaia dela eta bere garaian ideien lehiaketa egin zela, diseinu edo proiektu zirriborro bat ere badagoela eta aurrekontu aukeren arabera zai dagoela. Gaineratzen du lehentasunak jartzekoan Aleriarenari lehentasun gehiago eman zaiola eta gainontzean denak nahiko ados egongo direla pentsatzen duela, ze egin duen aurkezpena, udal arkitektoak Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa dokumentuan jasotzen duenaren antzekoa dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du Plazaren azterketan lau alternatiba daudela aztertuta baina alkateak esan duen bezala, aurrekontu honetan Aleria kultur etxeari eman zaiola lehentasuna.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du harridura sortu diola bidali zaieneko zirriborroarekiko sartutako aldaketa guzti hauek eta beste baterako eskatuko lukeela behin betiko zirriborroa bidaltzea gero zuzenketak egiten aritu beharrik ez izateko eta erdi galduta ez ibiltzeko. Aurrekontuari dagokionean esaten du eztabaidetan behin eta berriro adierazitakoa berresten duela, hau da, zenbait inbertsioekin ez datozela bat, beraiek bat ez datozen lerro politikoa markatzen dutelako eta horrek bere aurka bozkatzera behartuko dituela baina bestalde esanda utzi nahi dutela gai horiek ez direla inbertsioen seigarren kapitulua osatzen dutenetakoak, hauekin urtea joan urtea etorri ados daudelarik eta pozten direla aurtun azkenean ere Aleria gune sozio-kulturala sartu delako, urte asko direlako Alderdi Sozialistatik hau eskatzen ari direla.

Goenaga zinegotziak (EA) esaten du baiezkua emango diotela aurrekontu honi egin behar diren inbertsio asko onak direla ikusten dutelako baina bestalde bi puntualizazio egin nahi dituztela: bat, Etxeberria bildumarako ez dela inolako partidarik agertzen aurrekontu honetan eta bi, zinearen proiektu honetan iruditzen zaiela proiektua gehiago aztertutako beharko litzakela pleno honetara ekarri aurretik, bai proiektuaren kostuari bai bere finantzaketari dagokionean.

Alkateak egondako interbentzioei erantzunez esaten du, lehenengo, ezustea agertzearena ez dakiela zergatik ze aurrekontuaren gaiarekin lau edo bost Hazienda Batzordeko bilera egin direla eta ez dakiela hemen gaudenak bilera horietatik zenbaitetan izan geran eta gaur hemen aipatu diren gaiak ez direla berriak baizik bilera horietara joan ez direlako ez dituztela ezagutuko; gaineratzen du hemen azaldutakoak ez direla aldaketak baizik eta batzordean azaldutako gaien zehaztapenak, eta zehaztapen horiek azkeneko hazienda batzordean eman zirela baita ere, baina ordurako zirriborroa bidalita zegoenez ezin izan direla bertan jaso; azkenik eta aurrekontuaren aurka bozkatzeko aipatu diren partidei buruz eta partida horiek zeintzuk diren esan ez badira ere, iaz aurrekontuari buruz aurka bozkatzeko arrazoi izan ziren beraiek izango direla pentsatzen duela eta berak ere zeintzu diren ez duela esango baina bai esango duela partida horiek aurrekontu osoan, zinearena kontutan hartu gabe, zenbat suposatzen duten, eta esaten du partida horietako batek %0,17a suposatzen duela eta besteak %0,26. Etxeberriaren bildumarenari buruz esaten du aurrekontu honetan ez dela jasotzen baina 2005eko aurrekontuan 180.000 eu-

rotako partida dagoela. Areriarri dagokionean esaten du egia dela proiektua orain bi edo hiru urtekoa dela eta zenbakiak gaurkotu egin beharko direla baina azterketa hori obrak lehiaketara atera aurretik egin beharko dela eta gero ere proiektu hau, kontratuaren zenbatekoak hala agintzen duelako, Osoko Bilkurara etorriko dela bere onarpenerako; proiektu honen finantzaketari buruz, esaten du, aurtengo aurrekontuan jarri diren 1.700.000 euroko maileguaren bidez finantzatuko direla eta beste 1.300.000 euroren finantzaketarako azken hiru urtetan jarritako zenbatekoekin sortutako poltsa egongo litzatekela alde batetik eta proiektu horri eman zaion lehentasun maila garbi izanda, datozen urteetan sortutako gerakinak proiektu honetara bideratuta Lazkaoko Udalak inolako arazorik gabe egingo dio-la aurre proiektu honen finantzaketari.

Guzti honen ondoren, bozketan jartzen da 2006eko aurrekontua eta Osoko Bilkurak, aldeko zazpi (7) botu (EAJ, EA) eta aurkako bi (2) botuz (PSE-EE, PP) honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2006 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2006KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.003.560,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	72.240,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	719.820,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.542.290,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	23.220,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	12.384,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.719.334,09 €
SARRERAK GUZTIRA			6.092.848,09 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	989.000,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.060.559,52 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	20.131,57 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	415.157,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.480.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	127.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA			6.092.848,09 €

2006KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	2.588.816,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	12.050,00 €
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>2.600.866,00 €</u>

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	381.000,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	24.088,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	189.722,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.006.056,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>2.600.866,00 €</u>

2006KO UDALAREN AURREKONTU KONTSSOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.003.560,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	72.240,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	719.820,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.542.290,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	23.220,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	2.601.200,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	12.050,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.719.334,09 €
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>8.693.714,09 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	989.000,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.441.559,52 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	44.219,57 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	604.879,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	4.486.056,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	127.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>8.693.714,09 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- 2006RAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkeztu dira bere onarpenerako 2006rako Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EA) eta aurkako bi botuz (PSE-EE, PP), dokumentu hauek onartu egiten ditu.

VII.- POBREZIARI BURUZKO MOZIOA.-

Jarraian Aralar taldeak Udaletxean aurkeztu eta Alkatetzak osoko bilkura honetako eguneko gai zerrendan sartu duen mozioa eztabaidatzen da. Mozioak honela dio:

“Pobreziaren gainerako mozioa

Aralar udal-taldeak, indarrean den araudiaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Urriaren 17an, Pobreziaren kontrako nazioarteko egunea dela eta, honako proposamena aurkeztu dugu Pobreziaren kontrako konpromisoa denon artean har dezagun estatuko gastu militarrei uko eginez.

1.- Estatuko gastu militarretan Euskadiri dagokiona

Eusko Legebiltzarrak eta Jaurilaritzak Defentsarekin lotutako ahalmen transferiturik ez duenez, EAEn ez dago diru partidarik esleitura kontzeptu honen pean. Horregatik Estatuko Aurrekontu Orokorretara jo behar dugu Estatuko gastu militarra zein den ezagutu eta EAEk gastu horren zein kopuru finantzatzen duen jakiteko. Eusko Jaurilaritzak sinatutako Kupoen Akordioaren arabera kopuru osoaren %6,24a ordaintzen du EAEk.

2005ean, EAEn Estatuko gastu militarretan dagokion kopurua 997,03 milioi eurotakoa da.

2005ean, EAEn gastu polizialean, 537,26 milioi euro dagokio, 2003an gastu poliziale tarako zegoena baino %17,3 gehiago.

Horrela, estatuko gastu militarrentzat dagokiona eta gastu poliziale tarako dagokiona batuta, 2005erako, EAEn Estatuko gastu militarretan 1.534,29 milioi euro dagokio.

Gastu honek (2003koan egokitutakoarekin alderatuz %7,33 gehiago suposatzen duenak), zera adierazten du:

- ?? EAEEn eguneko 4,20 milioi euro bideratzen dira gastu miitarretarako (alegia, egunean 700 milioi pezeta jartzea).
- ?? EAEEn pertsonako 725,37 euro bideratzen dira urtean gastu militarretarako (alegia, 120.691 pezeta).

Kanpo zorra bertan behera uzteak, EAE-ko biztanle bakoitzari urtean 16,174 euro suposatuko lizkioke.

2.- EAEk jarri duen dirua azken gerrateak finantzatzeko

Konpetentziarik ez duen gaitan EAERI dagokion kuota 35,21 milioi eurotako da. Alegia, ILP (Iniciativa Legislativa Popular) delakoak Kanpo Zorra kitatzeko 10 urtean zehar jartzea proposatzen duena baino zertxobait gehiago (33,98 milioi euro).

A) Irakeko gerra (2003 eta 2004):	369,73 milioi euro.
B) Afganistaneko gerra (2002-2004):	194,58 milioi euro.
Guztira:	564,31 milioi euro.

Kupoa dela eta kontzeptu portzentuala aplikatzen ziona (%6,24) kontuan hartuta, EAERI Irak eta Afganistango gerrak finantzatzeko egokitutakoa 35,21 milioi euro izan ziren.

Aipatutakoak, Estatuko gastu militarrek bermatzeko EAERI dagozkion zenbakiak dira. Jarraian EAEn dauzkagun beste zenbaki desberdinak ikus ditzakegu:

- ?? 1a milioi erdi pertsona (412.963) EAEn, ongizatea galdu eta pobrezian erortzeko arriskuan daude.
- ?? Eusko Jaurlaritzak egidnako inkestan jasotzen denez, 11.000 pertsona (biztanleen %5,2) miserian bizi dira EAEn, eta bakarrik bizi diren emakumeak eta etorkinak dira pobrezia gehien sufritzen dutenak.
- ?? Laburtuz, EAEn 50.000 inguru familia dira aurrera ateratzeko arazo larriak dituztenak, eta hilabetearen bukaerara iritsi ezinik bizi direnak.
- ?? EAEn 10 behartsuetatik 4, 25 urtetik beherakoak dira. Guztiz behartsuk diren 10-etik 6, 25 urtetik beherakoak dira.

Hori dela eta, proposatzen dugu Udalak Eusko Jaurlaritzari ondorengo eskatzea:

- 1.- Eusko Jaurlaritzak Milurteko Helburuen aldeko apustu argia egitea, eta batez ere pobreziarekin amaitzeko urratsak eman ditzala.
- 2.- Eusko Jaurlaritzak Gastu militarra ordaintzeko egokitzen zaion diru partida, pobrezia bi arlotan ezabatzeko erabili dezala:
 - 2.1.- Irakeko eta Afganistango gerrak ordaintzeko, eta etorkizunean etor litezkeen gerrak ordaintzeko EAERI ordaintzea egokitu zaion dirua, HELa (Herri Ekimen Legegilea) aurrekontuz babesteko erabili dezala, pobrezian dauden herrialde-ekiko justiziagatik eta solidaritateagatik.

- 2.2.- EAeri ordaintzea egokitzen zaion gastu militarreko dirua, EAEko gizarte zerbitzuak dituen gabeziak babesteko erabili dezala, LGS (Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata)aren %100a Oinarrizko Errentarako izan dadila, eta GLL (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak)etako kontzeptu subjektiboa EAEn pobrezia suntsitzeko beharrezko erreminta gisara erabili dadila.”

Alkateak (EAJ) esaten du mozio honi ezezkoa emango diotela, ez funtsean ados ez daudelako baizik eta kupoaren gaia Estadua eta Foru Aldundien arteko negoziaketa izaten dela eta ez legokiola Eusko Jaurlaritzari eta kupotik deskontatzeko eskaera hori Estaduari egin beharko litzaiokeela eta gainera kupoak ez duela izaera finalistarik.

Arrasate zinegotziak (EAJ) esaten du mozio hau txirotasunaren aurka ez baizik eta militarismoaren aurka dihoala eta beretzat ejerzitoak beharrezkoak direla pakea eta justizia mantentzeko, tamalez baina hala dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka bozkatuko dutela eta ez txirotasunaren aurka ahalik eta modu gehienetan jardutearen alde ez daudelako, hala egin behar dela uste dutelako, baina uste dute txirotasunaren atarian dauden familien kopuruari buruz mozio honek aurkeztzen dituen zenbakiak kezkarriak direla baina baita ere uste dute txirotasuna gastu militarrekin nahastea konpatibleak izan beharrik ez duten bi kontzeptu nahastea dela iruditzen zaiela, uste dutela gastu militarra egiten jarraitu beharrezkoa dela eta ejerzitoak, gaur gaurkoz, beharrezkoak direla.

Goenaga zinegotziak (EA) esaten du gastu militarrik ez legokela militarrik eta ejerzitorik ez balego eta beraiek militarrek egotearen aurka dagoela, baina bestalde Eusko Jaurlaritzak militarrentzat joan daitekeen kopuru bati legokiokkeen kupoaren % zenbateko bat ordainduko ez baluke beste nonbaitetik kenduko ligoetela eta Estaduko gobernuari bai eskatuko lioketela kupo negoziazio honetan Eusko Autonomi Erkidegoari dagozkion gastu militarrek kanpo utzi ditzala eta Eusko Jaurlaritzak diru hori erabili dezala bai txirotasunaren aurka bai beste herrialde batzuei laguntzeko eta gizarte gastu gehiago egin dezala diru horrekin.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berak ere mozioaren aurka bozkatuko duela.

Guzti honen ondoren mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko boturik gabe eta aurkako bederatzi botuz (EAJ, EA, PSE-EE, PP), mozioari ezetza ematen dio.

VIII.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen dela eta, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ondorengo adierazpen instituzionala onartzea proposatzen du:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa onartezina da eta bizitzaren eremu guztietan emakumeek jasaten duten bereizkeriaren ondorioz larriena seguru asko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta bereizkeriaren arazoak gizartearen egiturarekin du zerikusia eta alderdi anitz eta esberdin ditu. Horregatik, gizartetik erauzteko herri-aginte guztien eta gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa da. Arazo honi aurre egingo bazaio, hainbat alorretan modu koordinatuan lan egin beharra dago: legegintzan, ikerkuntzan, sentsibilizazioan, prebentzioan eta biktimak babesten eta laguntzen.

Udal honek badaki toki-administrazioak oinarritzko papera duela emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta desagerrarazten eta, hori dela eta, azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela eta:

?? KONPROMISOA hartzen du, bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legeria betez, emakumeen berdintasunaren alde eta euren aurkako indarkeriaren kontra udal politika aktiboa izateko.

?? Udalerriko hiritar guztiak ANIMATZEN DITU indarkeria honen aurkako jarrera aktiboa azaltzera eta azaroaren 25ean deitzen diren ekitaldietan parte hartzera.”

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, adierazpena onartu egiten du.

IX.- EUROPAKO HIRIEN KARTA GARAPEN JASANGARRIARI ADOSTASUN AITORMENA.-

Jarraian "Europako Hirien Karta Garapen Jasangarriaren Bila" dokumentua aurkeztu da osoko bilkurara bere onarpenerako. Dokumentu honek, bere espedientean dagoenak, honako hiru zati hauek ditu:

I. zatia .- Adostasun aitormena: Europako hiriak garapen jasangarriaren bila.

II. zatia.- Garapen jasangarriko hiri europarren kanpaina.

III. zatia.- Programa 21aren tokiko ekimenetan parte hartzea: garapen jasangarriaren aldeko tokiko ekintza plana.

Osoko Bilkurak, dokumentu hau aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berau onartzea erabakitzen du.

X.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUN KONPROMISOAREKIKO ATXIKIPENA.-

Jarraian "Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun Konpromisoarekiko Atxikipena" dokumentua aurkeztu da osoko bilkurara bere onarpenerako. Dokumentuak honela dio:

“EUSKAL HERRIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA

Eusko Legebiltzarrak 1998an onartutako Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, Euskal Herrirako eredu jasangarriarekiko konpromiso sendoa adierazten du, oraingo premiei erantzun eta etorkizuneko beharretan bere premiei erantzuteko gaitasuna arriskutan izan ez dezaten.

Garapen-eredu berri hau bere ondorio guztiekin onartzeak, oraingo ereduan aldaketa sakona eragiten saiatzea esan nahi du. Produkzioan eta kontsumoan portaera berriak sartzea esan nahi du. Pertsona gisa eta gizarte gisa poluzioari eta baliabide-kontsumoari buruz, hondakin-produkzioari buruz, lurzoruak kaltetzeari buruz eta biodibertsitate-galerari buruz konpromisoa hartzea esan nahi du. Nolanahi ere, aldaketa hau ez bultzatzeak gure planetaren etorkizuna zalantzan jartzea eta etorkizunean bertan biziko direnen ongizatea hipotekatzea adierazten du.

Beraz, beharrezkoa da gure bizi-kalitatea jasangarritasunaren zimendu gainean eraikitzea, hau da, ongizate ekonomikoaren, gizarte-justiziaren eta ingurugiro garbi eta osasungarriaren gainean eraikitzea. Zutabe hauek, hirurek, bultzatu behar dugun garapen-ereduko ezinbesteko oinarria osatzen dute. Ingurugiroa babestea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta ekosistemen produkzio-ahalmena dira kontuan hartzeko oinarritzko baldintzak.

Hau guztia dela eta, agiri honek jasangarritasunean oinarritutako eredu berrira iristeko konpromiso sendoaren adierazpena izan nahi du. Euskal Autonomia Erkidegoan helburu horretarako adostutako estrategia, ondoko oinarriek definitzen dute:

- ? **Kode etikoa.** Globalizazioak, biztanleria-hazkundeak eta mundu guztian kontsumo-mailak igotzeak, baliabide-eskaria izugarri igoarazi dute. Industrializatutako herriak garapen bidean diren herriekin eta hirugarren mundukoekin nazioarteko anaitasuna sustatzeko betebeharra dugu. Izan ere, gure gizarteak eta gurea bezalako gizarte garatuak sortutako ingurugiro-eraginaren zati handi bat haiek jasaten dute. Joera-aurrerakuspenak dioenez, oraingo ingurugiro-arazo asko larriagoak izan daitezke hurrengo hamarkadan, batez ere gaur egungo produkzio eta kontsumoko ereduen eraginez. Beraz, nahitaezkoa da gure pentsaera, gure baloreak, gure bizimodua eta gure kontsumo-portaerak aldatzea. Belaunaldien arteko eta nazioarteko anaitasuna gure zereginaren oinarri da.
- ? **Gizartearen kohesioa eta partaidetza.** Gizarteko sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunerako prozesuan. Ingurugiro-degradaziora bultzatzen ari da zenbait sektore-politika, eta horiek aldatzeko eragin behar diren egitura-berrikuntza garrantzitsuak sartzeak, komunikazio-sistemak hobetzea eta herritarrak mobilizatzea esan nahi du. Politikak prestatzen eta erabakiak hartzen gizarteko eragile guztiek parte hartzeak, lagundu egingo du anaitasuneko eta ingurugiro-errespetuko baloreak geuregantz.
- ? **Arreta-oinarria.** Ingurugiroaren kontra kalteak sortzeko mehatxuak daudenean, ekintzak bultzatu behar ditugu. Ziur ez egotea edo ezagutza zientifikorik ez izatea, babesteko edozein ekintza atzeratzeko edo eragozteko ez da nahikoa arrazoi izango.
- ? **Ikuspegi integratua.** Jasangarritasunerantz aurrera egitea ez da ingurugiro-politikak erabilita bakarrik lortuko, ingurugiro-portaerak dituzten politika sozioekonomiko sendotuen bidez baizik. Beraz, lehentasuna du ingurugiro-aldagaia sektore-politika guztietan txertatzeak, eta batez ere industrian, garraioan, energian, nekazaritzan eta kontsumoan txertatzeak.

- ? **Ekoeraginkortasuna.** Hurrengo hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoaren aukera nagusia honako hau izango da: giza baliabide gehiago erabilita eta baliabide natural gutxiago erabilita, ongizate-maila handiagoa lortzea. Hazkunde ekonomikoa baliabideak erabiltzetik eta poluziotik askatzea erabat funtsezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Produktibitatea handiagotuta baliabide natural gutxiago erabiltzeko aldaketa egin daiteke eta egin behar da. Horrela ekonomiako sektore guztietan ingurugiro-eragina txikiagoa izango da produktu eta zerbitzuen bizialdi osoan zehar. Ekoeraginkortasuneko teknologi iraultza, bera bakarrik nahikoa ez bada ere, jasangarritasunerako beharrezko gaia da.
- ? **Plangintza Estrategikoa.** Euskal Herriko ingurugiro-helburuek, euskal gizarteak beretzat eta hurrengo belaunaldientzat onartzeko prest dagoen ingurugiro-kalitateaz egindako prozesuaren emaitza izan behar dute. Garapen-eredu berriak Ingurugiroko Esparru Programan islatu behar du.

Garapen jasangarria, berehala eta tinko ekitea eskatzen duen estrategia jarraitu gisa hartu behar da. Jasangarritasunerantz aurrea egiteak ingurugiro, gizarte, ekonomia eta kulturako etekinak jaso eta besteentzat uztea esan nahi du.

Euskal Herriko jasangarritasunaren alde.”

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, dokumentu hau onartzea erabakitzen du.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du abenduko osoko bilkura, eguberri festak kontutan izanda, behar bada aurreratu egingo dela.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.